



KALERATZERIK EZ!

KALERATZERIK EZ!

KALERATZERIK EZ!

Horixe aldarrikatu zuten
langileek maiatzaren lehenean.



-KETA atzizkia *Hiztegi Batuan*



Ekintza edo jarduera adierazteko erabiltzen da batez ere **-KETA** atzizkia, euskalki guztietan.

Hiztegi Batua

garbiketa iz.: *etxeko garbiketak egiten ari da; garbiketak egiteko ontziak.*

Orotariko Euskal Hiztegia

garbiketa (V-gip, G, L; Lcc, Lar, Dv, H). Ref.: A; Elexp *Berg*.
◆ Limpieza (acción de limpiar); purificación, depuración.

Euskal Hiztegia

garbiketa iz. (1745, ~1763) Garbitzea.



Ugari ditugu tradizioan -KETA atzizkiaz osatutako izenak. Hona ekintza edo jarduera adiera dutenetako batzuk, *Hiztegi Batuan*:

Aa aldaketa, alderaketa, antolaketa, apainketa, apurketa (iz. 'apurtzea'), araketa (iz. *Sin.* arakatze), arauketa, arazketa, ardazketa, ariketa, arnasketa, arraunketa, arrazoiketa, artazuriketa, artekaketa (iz. *Teknol.*), asmaketa, astalketa, atxiloketa, aukeraketa, aurreidazketa, aurreirakurketa, azterketa

Zz zainketa, zamaketa, zapalketa, zatiketa, zenbaketa, zigorketa, ziriketa ('zirikaldia'), zorrozketa, zozketa, zuketa, zulaketa, zundaketa, zuriketa



Beste atzizki batzuk ere badira, aditzak adierazten duen zer horren 'gertatzea' aditzera ematen dutenak: **-ERA, -MEN/-PEN, -MENDU, -KUNTZA**. Horregatik, zalantzak sortzen dira askotan:

- *Ebaluaketa-teknikak* edo *ebaluazio-teknikak*?
- *Altxorraren desagerketa, altxorraren desagertzea* edo *altxorraren desagerpena*?
- *Lasaitze-ariketak* edo *lasaiketa-ariketak*?
- *Polinomioen faktorketa* edo *polinomioen faktORIZAZIOA*?



Noiz erantsi **-KETA**, noiz **-ZIO**, noiz **-TZE**, noiz **-MEN/-PEN**? Ez da erraza galdera horri gogobeteko erantzuna ematea. Nolanahi ere, Euskaltzaindiko LEF batzordeak (Lexiko Ebazpenen Finkapena) gomendio batzuk eman zituen aspaldi:

- “1. -zio atzizkia (euskal oinarriei erantsirik ere aurki dezakeguna: *amorrazio, burutazio, asmazio, segizio...*) onartu eta bultzatu maileguetan. Ez dugu uste *instalakuntza, integrapen* eta *ebaluaketa* esanez ezer irabazten dugunik; hobe genuke *instalazio* eta *integrazio* onartzea, Hegoaldean behintzat.”**



"2. -tze/-te edozein aditsoinek har dezakeen atzizkia dela gogorarazi, eta batzuetan baliagarri gerta dakigukeela: *lanaren beteketa* edo *betepena* baino askoz samurragoa litzateke *lanaren betetzea* gaztelerazko "cumplimiento" adierazteko. (Izen balioan gogoratu, nahitaez, aurretik genitiboa eskatzen duela)."



“3. Nor motako aditzekin, hau da, *da* laguntzailea hartzen dutenekin, *-era* edo *-tze* atzizkiak erabiltzea gomendatzen du batzordeak, aditzak adierazten duenaren gertatzea edo gauzatzea adierazi nahi denean. Hobe *bihotzaren geldiera/ gelditzea, bihotzaren geldiketa* baino (perpaus-egitura ere, jokatua nahiz jokatugabea, beste batzuetan oso egokia izan daitekeela ahantzi gabe: *bihotza gelditzea, bihotza gelditu zitzaion*). Edo *Titanic-en hondoratzea* hobe, *Titanic-en hondoraketa* baino. Bide beretik, *damutze* edo *damuera* hobetsiko genuke, eta ez *damuketa*.”



Aintzat hartu dira gomendiook *Hiztegi Batua* osatzean eta, hartara, forma batzuk zuzendu dira:

-KETA* > -ZIO

azentuketa* e. **azentuazio**

baloraketa* e. **balorazio**

ebaluaketa* e. **ebaluazio**

egitarauketa* e. **programazio**

faktorketa* e. **faktorizazio**

-KETA* > -PEN

argitaraketa* e. **argitalpen; argitaraldi**

arregaketa*, erregaketa* e. **ureztapen**

desagerketa* e. **desagerpen; desagertze**

egokiketa* e. **egokitzapen; egokitze**

eragozketa* e. **eragozpen**

erakarketa* e. **erakarpen**

errepikaketa* e. **errepika; errepikapen**



-KETA*

alderanzketa* e. **inbertsio**

arakaketa* e. **araketa; arakatze**

araupeketa* e. **arauketa**

biderkaketa* e. **biderketa**

bonbaketa* e. **bonbardaketa; bonbardamendu; bonbardatze**

digeriketa* e. **digestio**

ehizketa*, ihizketa* e. **ehiza**

emanketa* e. **emate**

erabilketa* e. **erabilera**

eraiketa* e. **eraikuntza**

gainbegiraketa* e. **gainbegiratu**

guduketa* e. **guduka**

lapurketa* e. **lapurreta**

liseriketa* e. **digestio**



-KETA (Hobetsitako beste forma batzuk)

agerketa	1 iz. h. agerkera; agertze; agerraldi 2 iz. h. agerpen; agerraldi; agerkunde
aitorketa	iz. <i>g.er.</i> h. aitorpen; aitortza
erorketa	iz. h. eroriko
hausketa	iz. h. hauste



Dena dela, kasuan-kasuan aztertu beharko dira hitzak eta esapideak aurrerantzean ere. Esaterako:

*Kaleraketarik ez!,
Kaleratzerik ez!
edo
Despidorik ez! ?*

Honela, egokien:

KALERATZERIK EZ!



Bidea egina du '**kaleratze**' formak, euskal testuen datu-baseetan ikus daitekeenez:

- Bidegabeko **kaleratzeak** salatu ditu enpresabatzaordeak.
- **Kaleratzearen** kalte-ordainak merkatu ditulan-erreformak.
- **Etxe-kaleratzeak** legez saihesteko, milioi erdi sinadura bildu nahi dituzte.

Ikus bedi, halaber, '**kaleratze**' sarrera [*Egungo Euskararen Hiztegia*](#)n.



Esaterako:

- *Egundoko **geldiketa** egin zuen Mirjana Milenkovic atezainak*
- **edo**
- *Egundoko **gelditua** egin zuen Mirjana Milenkovic atezainak?*

Tradiziorik ez duen arren (OEHn ez da ageri), bide puska bat egina du '**geldiketa**' formak kirol-kazetaritzan, eta molde hori onartu du Hiztegi Batuko lantaldeak kirolaren arlorako.

Jakina, zuzena eta egokia da '**egundoko gelditua**' esapidea.